

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2010eko abenduaren 16a. VIII. urtea. 2.141. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

Joanes Gibelalde Bidaiaria

## «Bidaiatzeko oso egokia da bizikleta; bidea bizi egiten da»

Tolosarrak 17 hilabete eman ditu munduan zehar bidaiatzen; Tolosatik Istanbulera eta Amerika iparretik hegora zeharkatu ditu bizikletarekin, 25.000 kilometro eginez ◀7



I. SAIZAR



L. TRAPALLOS

→ **Xabi Alonsori omenaldia.** Bai pertsona bezala, bai eta kirolari bezala «eredu» izateagatik jasoko du omenaldia Real Madrileko jokalaria abenduaren 26an; 22. Shanti Txapelketari tolosarrak emango dio hasiera, bertan 600 gazte inguruk hartuko dute parte. ◀2

Patxi Zeberio  
Erremonte jokalaria

«Askok uste zuten bikoterik ahulena ginela, baina finalean sartuz ezustekoa eman dugu»

Elkarrizketa ◀6



M. MALENANDRES

## Ezker Abertzaleak legalizazioaren aldeko ekimenak antolatu ditu

Etzi, hilaren 18an, eskualdeko herritarrei kalera ateratzeko eskatu diete; horrez gain, «ondorengo egunetan», marka politiko berriari «babesa eta ongi etorria» emango diela azaldu dute ◀3



Egin zure erosketak Mugarren

MUGAR  
MODA INTIMA

Nafarroa etorb. 16 • Tel.: 943 65 56 85  
Pablo Gorosabel, 28 • Tel.: 943 65 40 37  
TOLOSA



Opari praktikook Mugarren



Udaleko ordezkariak omenaldia antolatzen ari diren kideekin eta gaztetxoekin batera, atzo eginiko aurkezpenari. L. TERRADILLOS

# Abenduaren 26an egingo dio Tolosak omenaldia Xabi Alonso futbolariari

Lehendabizi harrera egingo diote udaletxean, eta ondoren, Shanti Txapelketari hasiera emango diote Usabalen

**Iñigo Terradillos** Tolosa

Xabi Alonso futbolari tolosarrari omenaldia egingo dio Tolosak abenduaren 26an. Udala, hainbat eragileren laguntzarekin, ekitaldi berezia ari da prestatzen egun horretarako, jokalariei ibilbidean lagun izan dituen pertsonen eta herriko gazte ugariaren parte-hartzearekin.

Iragan uztailen Munduko Kopa irabazi zuen Espainiako selekzioarekin, eta ordutik tolosarrari omenaldia egiteko data finkatu ezinik aritu da Tolosako Udala, «Alonsoren agenda betea dela eta». Hala, Gabonetan Espai-

niako Ligan egingo duten geldialdia baliatuko dute ekitaldi sorta egiteko.

## Ekitaldi «herrikoa»

Bai pertsona bezala, bai eta kirolari bezala «eredu» izateagatik jasoko du omenaldia Real Madrileko jokalaria. Jokin Bildarratz Tolosako alkateak azaldu duen bezala, ekitaldi «herrikoa eta berezia izango da, bereziki gaztetxoek parte hartuko dutelarik».

Ekitaldia 11:00etan hasiko da Plaza Zaharrean. Bertan harrera berezia egingo diote, eta ondoren, udaletxeko batzar aretora igoko dira. Han futbolaren munduan harremana izan duen pertsonen batera burutuko dute ekitaldia. «Oroigarriak izango dira, eta bere ibilbidearen irudiak ikusiko dira, txikia zenetik gaur egunera artekoak, hain zuzen. Horrez gain, beste hainbat sorpresa ere izango dira», dio Bildarratzek.

Udaletxeko ekitaldiaren ondoren, Usabalen jarraituko du omenaldia, «unerik garrantzitsuenarekin». Xabi Alonsok Shanti Txapelketari hasiera emango dio gaztetxo ugariaren presentziarekin. «Horri nahi diogu eman garrantzia, Alonso herritarrekin, eta batez ere, gazteekin egotea», gehitzen du Tolosako alkateak.

Andoni Imaz Realeko jokalaria izandako tolosarra ere ari da ekitaldiaren antolaketa. «Omenaldi goxoa eta polita izango dela uste dugu. Gainera, futbolari edota klubetako presidenteez ilusio handiz jaso dute omenaldian parte hartzeko gonbidapena, eta askok baiezatu digute euren presentzia, beraz, oso gustura gaudu», azaldu du.

## Shanti txapelketaren hasiera

Atzo eginiko omenaldiaren aurkezpenaz aldu zutenaren araber, Shanti Txapelketan eman

zuten Xabi Alonsok lehen pausoa futbolean. Horregatik, ekitaldi nagusia «guztia hasi zen lekuan» egitea erabaki dute.

Jokalaritza tolosarrak 22. Shanti Txapelketari emango dio hasiera. Aurtengoan 60 talde ariko dira, 600 gazte inguru.

## Garaipenez beteriko ibilbidea

Eibarren eta Realean hainbat urtez jokatu ondoren, Liverpool futbol talde ingelesak fitxatu zuen Xabi Alonso 2004. urtean. Talde honekin Txapeldunen Liga, Europako Superkopa eta Ingalaterrako Kopa irabazi zituen. Bost denboraldi egin zituen talde gorriarekin, 2009an Real Madrilekin fitxatu zuen arte. Euskal selekzioarekin eta Espainiakoarekin hainbat aldiz jokatu du tolosarrak. Azken honekin, Eurokopa irabazi zuen 2008. urtean, eta Munduko Kopa, berriz, pasa den uztailen.

## ↓ Xabi Alonsori omenaldia

### ABENDUAK 26

■ **11:00.** Ongietorria udaletxean, irudi eta argazkiekin.

■ **11:45.** Plaka jarriko dute Xabi Alonsoren omenez, Usabal kiroldegian.

■ **12:15.** Shanti Txapelketari hasiera emango diote, opariek.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Ekonomika.** Lakuntza markako ekonomika, Clásica moda. Egoera onean eta oso gutxi erabilia. Interesatuak, deitu 649 51 09 41 telefono zenbakira.

■ **Zakurra.** Oilagorretarako zakur emea setterra. Zazpi urtekoa. 350 euro. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 943 01 65 78.

■ **Motorra.** Suzuki RMZ 450-a salgai. 2006. urtekoa eta egoera oso onean. Interesatuak deitu 635 75 09 15 telefono zenbakira.

■ **Eskopeta.** Bereta markako eskopeta railtua salgai. Oilagorretarako aproposa, bi kañoi jokurekin. 2007koa da eta oso gutxi erabilia dago. Harremanetarako telefono zenbakia: 635 75 09 15.

## → Laburrak

### 'Gipuzkoa Eraikitzen' ekimena, Kultur Etxean

**TOLOSA** | Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoa Eraikitzen izeneko saioretako bat egingo du gaur Tolosako Kultur Etxean, 18:30etik aurrera. Hain zuzen ere, Maria Jesus Aranburu Kultura eta Euskara Departamentuaren diputatua izango da, eskualdeko 20 lagun ingururekin etorkizunera begirako arazoak eta erronkak partekatzen. Gipuzkoako errealitatea ezagutzera ematea da ekimen honen helburu nagusia.

### 'Bayoneta' aldizkariaren ale berriaren aurkezpena

**TOLOSA** | Bayoneta aldizkariaren ale berria aurkeztuko dute gaur, 19:00etan, Kultur Etxean. Horrekin batera, *Napoleon basatiaren aurpegia* izenburupean Napoleonen garaiok propaganda eta kontrapropagandaz ariko da Montserrat Fornells historian katedradunak. Eusko Ikaskuntza eta Tolosako Udalaren arteko elkarlanegintza ekitaldia da.

### Irakurle taldea bilduko da gaur, Kultur Etxean

**TOLOSA** | Galtzaundi Irakurle Taldeak Ur Apalategiaren *Fikzioaren izterrak* liburua aztertuko du. Ur Apalategi idazlea berak liburua inguruko hehertasunak eskalniko ditu Tolosako Kultur Etxean, gaur 19:30etik aurrera.

### Errotan munduko ipuinak kontatuko dituzte, gaur

**TOLOSA** | Munduko ipuinen kontaketa egingo dute gaur, Errota Haur Liburutegian. 18:00etan izango da, eta 6 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendua dago. Ipuinak ingelesez kontatuko dituzte.

### Zine bonuak jarriko dituzte bihar salgai

**TOLOSA** | Zineko bonuak bihar jarriko dituzte salgai Leidorreko leihatilan, 17:00etatik 19:00etara. Hilaren 27ra arte eskuratu ahaliko dira zine saioen ordutegian. Saio guztietarako direnak 15 euroan eros daitezke, eta saio bakarrek 10 euroren truke.

**Oharra:** Herenegungo TOLOSADKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN alean, Alurr dantza taldearen albistean Katixa Agirre jartzen zuten lekuan, Katixa Perea beharko luke. Barkatu eragozpenak.

Beti Alai

jateak

Garaian garaiak janariak Arraikieta berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

# ‘Orain legalizazioa’ lortzeko herritarrak kalera deitu dituzte

Hauteskudeei begira, Ezker Abertzaleak «ondorengo egunetan marka politiko berria» aurkeztuko du

**Asier Imaz** Politika

Ezker Abertzalea kalera irtengo da hilaren 18an, etzi. Eskualdeko hainbat herritan ekimenak antolatuko ditu eta «demokrata oro» gonbidatu du bertara.

## ↓ Hitzorduek

### ETZI, HILAK 18

- **Amasa-Villabona.** 12:30ean, Errebotze plazan.
- **Armezeta.** 12:30ean. Hilaren 19an, berriz, Txindokira irteera Larraitzetik 09:00etan.
- **Anoeta.** 12:30ean, plazan.

Herri batzuetan, Tolosan adibidez, elkarretaratzea egingo dute eta besteetan, Anoetaren kasu, argazki herrikoia aterako dute.

### Marka politiko berria

Tolosan Ezker Abertzaleko hainbat kidek prentsurrekoak eskaini zuten herenegun, larunbateko ekitaldietan herritar ororen parte hartzea beharrezkoa dela azaltzeko: «Euskal Herrian egon daitezken sentsibilitate ezkeriar eta abertzaleak elkarlanean aritzeko garaia heldu da. Soilik modu ho-



Tolosako Ezker Abertzaleko hainbat kidek herenegun eskaini zuten prentsurrekoak. A. IMAZ

netan artikulatu daitezke gehiengo nagusiak espainiar indar politiko-koen estrategia suntsigarriari stop esateko».

Azken urte hauetan martxan jarri dituzten ekimenak «aurrerapauso garrantzitsuak» izan direla esan zuen Antton Izagirre Tolosako hautetsi independentistak: «Altsasuko eta Iruñeko adierazpenak, eskubide zibil eta politiko-koen aldeko mugimenduak, aldaketa politiko eta sozialaren aldeko ekimenak, Gernikako akordioa, preso-ko aldeko ekimenak...».

Baina «egindako apustua bide

onetik joan dadin», Ezker Abertzalearen ustez, «tresna eraginkor-rrak» behar dira.

Hemen kokatzen dute, besteak beste, marka politiko berria: «Ezinbestekoa da legezko indarra eta jardun eskubide guztien jabe izatea. Horretarako hartu dugu legezkatzeko erabakia eta konpromisoa. Helburu horrekin, egun gutxi barru marka politiko berri bati emango diogu babes eta ongi etorria. Beharrezkoa dugulako bakearen alde eta aldaketa politiko eta sozialen alde jarduteko tresna indartsu eta eraginko-

rra. Beharrezkoa dugulako epe motz, ertain eta luzera eskuarteran ditugun ekimenak bideratzeko eta gaineratzeko indar politikoekin batera baldintza berdinean jarduteko eta hauteskudetan lehitzeko».

Ezker Abertzalearen barne eztabaidaren ondorio gisa aurkeztu zuten estrategia politiko hau, eta bere funtsa, ondorengo dela berretsi zuten: «Indar abertzaleak eta ezkeriarrek Euskal Herriaren independentziaren aldeko lan eta ildo politiko amankomunean bat egitea».

# Bi kilometroko saihasbide berria egingo dute

Diputazioak ia 22 milioi euro inbertituko ditu; lanen artean 460 metroko tunela aurkitzen da

**Erredakzioa** Azpiegiturak

Gipuzkoako Foru Aldundiak ia 21,8 milioi euro inbertituko ditu Zizurkilgo saihasbidea egiteko. Guztira 1,8 kilometroko luzera izango duen errepide berriari esker, diputazioaren esanetan, «sarbideko eta bide-segurtasuneko baldintzak erabat hobetuko zaizkie Bulandegiko eta Ibaiondoko poligono industrialei eta Adunako eta Zizurkilgo udalerriei».

### Hiru biribilgune eta tunela

Proiektuaren trazatua Diputatu- en Kontseiluak onartu du, eta GI-2631 (Villabona-Orioko gaina) eta GI-2610 (Andoain-Zizurkil) errepideen saihasbidea izango da errepide berria. Guztira bi kilometro inguru izango dituela azaldu du diputazioak, Adunako Ibaiondoko poligonotik (GI-3610) Zizurkilgo Olentzo arearaino (GI-2631 errepidearen bideturtean).


Saihasbidearen trazatua GI-3610 errepideko bideturtearen biribilgune batean hasten da, Adunako Ibaiondoko poligono industrialearen aurrean, Bulandegiko area industrialaren atzealdetik gurutzatu eta mendebalderantz jarraitzen du. Ondoren, Antzibar erreka gurutzatzen du, hormigoizko egitura baten bidez, eta Elbarrenako errepidearekin (GI-3282) bat egiten du, non beste biribilgune bat egingo den.

Hortik aurrera, saihasbideak hego-mendebalderantz egiten du. Lehenik, Galardi baserria ezkerrean uzten du eta ibarbidea gurutzatu ondoren, Oilategiara iristen da. Leku horretan, trazatuak hegoalderantz jotzen du, muinoa 460 metroko tunel baten barrutik zeharkatuz. Tunelaren sarrera Gurutzega baserriaren ekialdean dago, eta irteera, berriz, baserri horren eta Goi-Arri eraikina- ren artean.

Handik aurrera, trazatuak norabidea aldatzen du, mendebalderantz egitenaz, Goi-Arri eta Mendi-Alai baserriak iparraldean utziz, eta GI-2631 errepidearekin bat eginez, Olentzoko arean; han egingo da hirugarren biribilgunea.



Tunelaren sarrera Gurutzega baserriaren ekialdean joango litzateke. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**2011**  
**agenda**

*Dagoeneko salgai!*



**12€**

- Liburu dendetan
- [www.euskalherrikoplaza.com](http://www.euskalherrikoplaza.com)

### Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

# Eresargiren urteurrena ospatzeko kontzertu berezia, etzi

Abesbatzaren 25. urteurrena ospatzeko 30 kide ohi inguruk ere hartuko dute parte emanaldian

**Erredakzioa** Villabona

Etzi, hilak 18, 19:45ak aldera Villabonako elizan Eresargi abesbatzaren kontzertu berezia izango da «ospakizunez beteriko urtemugaren urteari amaiera emateko». Abesbatzak aurten 25 urte bete ditu eta beraz, urtea bukatzeko Eguberrietako kontzertu «hunkigarria» eskaini nahi dute urte hauetan guztietan abesbatzatik pasa diren kideak kantatzera gonbidatuz.

Aurtengo Santio jaietan Mikel Urdangarinek in batera eskaini zuen Eresargi kontzertua eta abesbatzako kideek gogoratzen dutenez «entzulez leporaino bete

zen udaletzeko plaza». «Kontzertua jendetsua izateaz gain hunkigarria izan zen, lan itzela egin genuen, baina merezi izan zuen. Hala ere, 25 urte hauetan Eresargin parte hartu duten guztiekin elkartu nahi genuen, abesbatza bizirik mantentzen lagundu baitute», argitu dute. 30tik gora izango dira kontzertuan parte hartuko duten kantari ohiak.

Kontzertuan, Miarrizteko Itsa-

soa abesbatzak ere parte hartuko du era askotako erreperitorio eskekin.

Eresargik, bere aldetik, Gabonetako kantak abestuko ditu eta kontzertuari denen artean emango diote amaiera. Kontzertuan argazki proiektzioa ere egongo da. «Espero dugu honetan ere, momentu hunkigarriki bizitzea bilabonatar guztiekin», gaineratu dute.



Eresargi abesbatzak 25 urte bete ditu aurten. HITZA

## Irudia Leitza



## SESTORAINI ELKARTASUNA

Jose Jabier Sestorain leitzarrak atzo deklaratu zuen Nafarroako Entzutegian, «terrorismoa goratzea» egotzita. Hau salatzeke, herritarrek elkarretaratzea egin zuten epaitegiaren aurrean. 35 bat lagun elkartu ziren bertan, eta tartean izan zen Leitzako alkatea bera. Bestalde, herenegun Ez Ohiko Osoko Bilkura egin zuen udalbatzak eta bertan, inputazio hau salatzen zuen mozioa onartu zuten. HITZA

## Bikain aritu dira udal musika eskolako ikasleak Arrasaten

Akordeoi Lehiaketako 36. edizioan hiru arlo desberdinetan aritu ziren Eduardo Mokoroa eskolako gazteak

**Erredakzioa** Tolosa

Tolosako Eduardo Mokoroa udal musika eskolako ikasleak bikain aritu dira Arrasaten izandako 36. Akordeoi Lehiaketan.

Musika eskolako irakasleek esandakoaren arabera, hiru arlo desberdinetara aurkeztu ziren Tolosako eskolako ikasleak eta oso emaitza onak izan zituzten.

Alde batetik, sei ikasle bakar-kako sailean aritu ziren. Igor Oianluze, Ion Ansa, Arantxa Garrikano, Unai Arrieta, Kaiet Iglesias eta Aitzol Ugartemendia izan ziren parte-hartzaileak, hain zuzen.

**Ganbara arloa**

Bestalde, ganbara arloan bikote bat izan zen, Irati Estarbe akordeoiarekin eta Miren Izagirre flauta-

rekin. Bikoteak zilarrezko domina lortu zuen.

Azkenik talde mailan hemezortzi ikasle osatutako taldea izan zen Arrasaten. Unai Lertxundi, Saioa Aranburu, Xabier Iburguren, Uxue Perurena, Ane Urbizu, Mertxe Maiztegi, Miren Pastor, Leire Alargunsoro, Idoia Alonso, Ainitze Ugartemendia, Noemi Alonso, Aitor Aranburu, Aitor Arroyo, Nerea Gangoitia, Ander Zabala, Anton Telleria eta Ricardo Diaz de Gereñu izan ziren taldekiak. Hauen artean akordeoiak noski, perkusioa, pianoa eta kontrabaxua instrumentuak izan ziren. Aipagarria da, maila honetan lehenengo aldiz aurkeztu zela taldea eta emaitza ezin hobea lortu zutela: urrezko domina. Tolosarrak Murtzia eta Galizako kontserbatorioetako ikasleekin lehiatu ziren.

Horiek horrela, Eduardo Mokoroa udal musika eskolako arduradunak ikasleak zoriondu nahi izan dituzte eta «hemen parte hartu duten guraso eta irakasleei berriz, gure eskerrik beroenak» eman.

Abenduaren 18an  
Eskuratu BERRIekin zure kioskoan



## xabier lete

Xabier Letek 1974. urtean kaleratu zuen bakarkako lehen disko luzea, CD formatuan

Denborarekin herri kanta bihurtu diren haren lanak entzun ahal izango dituzu bertan:

- NI NAIZ (Xabier Lete)
- NAFARROA, ARRAGOIA (Xabier Lete)
- ONDAR GORRI (X. Lizardi / Xabier Lete)
- SINISTEN DUT (Xabier Lete / A. Valverde)
- ALZATEKO JAUN (Xabier Lete)
- IZOTZ-ONDOKO EGUZKI (X. Lizardi / Xabier Lete)
- GIZA-ABEREA (Xabier Lete)
- SEHASKA KANTA (Xabier Lete)
- KONTRAPAS (B. Etxepare / Xabier Lete)

“Sinisten dut hartuko nauen lur hortatik landare berriak sortuko direla”

Xabier Lete oroitzuz



HARPIDEDUNENTZAT OHARRA:

Nahikoa izango duzue 943-30 43 45 telefonora deitzea edo 'harpidetza@berria.info' helbidera idaztea, eta 5 € ren truke etxean jasoko duzue CDa.

matilda

gabon hauetan, baiditu ezazu opari onuragarrikin  
zuzen matildarekin, berriak eta...

# Eguberrietako kontzertuak emango dio Txintxarriren 50. urteurrenari amaiera

Txintxarriko bi abesbatzez gain, Tolosako Musika Eskolako bandak ere parte hartuko du

## Erredakzioa Alegia

Alegiako Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek datorren igandean emango dute Eguberrietako kontzertua Alegiako Juan Bataiatzailea Deunaren elizan. Emanaldia 19:00etan izango da, eta aurten Tolosako Musika Eskolako bandaz lagunduta ariko dira alegiarak. Abesbatzaren 50. urteurrenako azken ekitaldia izango da eta oraingoan ere gogoa izango dute Joxe Gastesi abesbatzaren sortzailea eta lehen zuzendaria.

80 bat lagun ariko dira elkarrekin Eguberrietako doinuak eskainiz. Garbiñe Orbegozo eta Miguel Angel Morenoren zuzendaritzapean ariko dira kantariak eta musikariak.

Musika bandakoek hasiko dute emanaldia. 90 lagunek osatzen dute banda, baina Alegiara 40 bat joango dira. Bi doinu eskainiko dituzte musikariek. Lehendabizi Luis Angel Tarragona akordeoi jolearen *Koskorri* kalejira. Bigarrena Johannes Brahms musika



Tolosako Musika Eskolako bandaren emanaldi bat. HITZA

gilearen *Dantza hungariarra, sei-garren zenbakia* izango da.

Segidan Txintxarri abesbatzakoek beste bi doinu kantatuko dituzte. Javi Busto hondarribiarraren *Puer natus est nobis* doinua eta Juan Urteaga musikagilearen *Atzar gaiten*.

Aurtengo urtea berezia izaki, zenbait kantutan elkarrekin abestuko dute Idoia Iraola tolosarrak zuzentzen duen haur abesbatzak eta helduen koruak. Kantu horien ondoren abesbatzak eta musika banda elkarrekin ariko dira. Lorenzo Ondarrak eta X. Izagirrek moldatutako hiru pieza eskainiko dituzte aurrena: *Hator; hator, Birjina maite* eta *Mesias sarritan*. Ondoren, Snyder eta Moss musikagileek moldatutako ingelesezko eguberri abestiak eskainiko dituzte: *A Festive Christmas*

*Celebration* izeneko bilduman lau abesti abestuko dituzte bata bestearen atzetik. Mariaje Rekondo herritarrek pianoarekin lagunduko die abesbatzari eta bandari zenbait kantutan.

## Haendelen 'Alleluia'

Aspaldidanik, Txintxarri abesbatzak Haendelen *Alleluia* kantatuz amaitzen du Eguberrietako kontzertua. Aurten ere eskainiko dute musikagile alemaniarraren obra handi hori. Txintxarri egunean egin zuten bezala, oraingoan ere, Txintxarri abesbatzaren kantari ibilitakoak elkartuko dituzte abesbatzakoek. Horretarako, obra errepasatu eta prestatzeko, entseguak egiten ari dira azken asteetan. Azken entsegua bihar izango da, 21:45ean, Alegiakolizian.

# Ekialdeari buruzko herri batzarra, gaur

## Erredakzioa Ikaztegieta

Ikaztegieta Ekialdea eremua garatzeko -Toki-Alaitik hasi eta Hertell bitarteko eremua- Astazaldi arkitekto taldeak egindako proiektuaren proposamena esku artean du udalak. Hori dela eta, herritar guztiei dei egiten die gaur 20:00etan liburutegian egin-goduten batzarrean parte hartzera.

Proposamena, maketa eta panel ezberdinen bidez erakutsi eta azalduko da. Bertan argituko da

etxebizitza eta eremu publikoak non kokatuko lirakeen. Herritarren zalantza, iritzi eta ideiak jasotzeko asmoa duela azaldu du udalak.

Batzarraren ostean, urte bukera bitarteko epea utziko dute liburutegian egongo den postontzian iradokizunak uzteko.

Proiektua lasaiago ikusi nahi izanez gero, liburutegian egongo da ikusgai hilaren 20tik 23ra, 18:00etatik 20:00etara. Udalak herritarrei parte hartzeko deia luzatu die.

## Irudia Tolosa



## ADINEKOAK KANTARI

Iurramendi adinekoen zentrok egotzilek bisita egin zieten atzo Uzturre adineko zentrokoei. Bi zentrokoei gabon kantak abestu zituzten, euskaraz zein erdaraz. I. GARCIA



## harpidedun izateak badu saria

### ① Sarrera para

Oreka TXek eskainiko duen **Nomadak TX** ikuskizunerako



Abenduak 18, Larunbata • 22:00etan Villabonako Olaederra kiroldegian

### ② Sarrera para

Orfeoia eskainiko duen **Eguberri** kontzerturako



Abenduak 22, Asteazkena • 20:30ean Tolosako Leidorren

### ③ Sarrera para

Poxpolo eta konpainiak eskainiko duten **Segi Jotzen** jaialdirako



Abenduak 26, Igandea • 17:00etan Tolosako Leidorren

### ④ Sarrera para

Eguberrietako **Bertso Jaialdia**



Abenduak 26, Igandea  
17:30ean Ibarroki Kiroldegian

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunear, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedunen  
**TXOKOA hitza**

**Patxi Zeberio** ◊  
Erremonte jokalaria

Binakako txapelketako zazpigarren finala jokatu du elduaingoak; Zeberio II.a eta Ionek Urriza eta Etxeberria III izango dituzte aurkari

# «Final gogorra izango da, denoi kostako zaigu tantoa egitea»



MAIALEN ANDRES

**Esti Ezeiza** Elduain

Binakako Azysa Txapelketako finala jokatu du etzi Patxi Zeberio. Herenegun Urtasun eta San Migueli irabazi ostean lortu zuten finalerako txartela elduaingoak eta bere bikote den Ionek. Zeberio II. arentzat zazpigarren finala izango da honakoa. Galarreta pilotalekuan 16:00etan dute hitzordua Zeberio II-Ion eta Urriza-Etxeberria III.ak. Baina honen aurretik, gaur materiala aukeratu dute.

**Urtasun eta San Miguelen aurka, gaizki hasi bazineten ere, irabaziz amaituzuten.**

Ezinezko partida zela zirudien. Beraiek oso indartsu ateratzen dira jokora, San Miguelek markatzen duen diferentziarekin, gainera orain kolpe handiarekin dago eta zaila da bere jokoari heustea. Horregatik heutsi ezinik ibili ginen hasieran. Hala ere, markagailuan oso urrutira ez zitzaizkigun joan eta azkenean, egoskorkeriz, eta eutsiz, pixkanaka aurre hartzea lortu genuen.

Gero gainera, amaieran, nerbioengatik edo, beraiek fisikoki beharuntz joan ziren, eta gu berriz, goruntz.

**Partida gogorra izan zen.**

Gogorra eta tentsio handikoa. San Miguelek jartzen duen erritmoari jarraitzea zaila da. Indar handia ematen dio pilotari eta deseroso jokatu arazten dizu.

**Etziko finala zure zazpigarren finala izango da, eta irabaziz gero, baita zazpigarren txapela ere.**

Bai, sei aldiz iritsi naiz, seiak irabazi ditut eta ea bolada horrekin jarraitzen dudana. Zortea erekin eta nire aukeretan sinestuz, gauzak ongi joan zaizkit, eta oraingo honetan ere, finalerako ilusio handiarekin nago. Aukerak baditugula uste dut, eta ea txapela irabazten dugun.

**Ligaxkan, Urriza eta Etxeberriaren artekoan, beraiek izan ziren garaile.**

Txapelketako gure lehendabiziko partida zen hura, gainera, Ion eta biok elkarrekin aspaldi jokatu gabe geunden. Nire ustez, orain askoz hobeto gaude, gainera da goeneko elkarrekin hainbat par-

tida jokatu ditugu. Partida arraroa izan zen hura, gehienez gu izan ginen nagusi, baina amaitzeko hiru tanto edo falta zirenean, buelta ematea lortu zuten. Ziurrenik ordukoak larunbatekoarekin ez du zerikusirik izango.

**Nolako partida izango da ba finala?**

Txapelketa oso ona egin dute beraiek, partida guztiak irabaziz, eta final gogorra izango da. Oso tanto gutxi galtzen dituzte beraiek eta gogorrak dira, baina gu ere bikote indartsua gara eta denentzat izango da zaila tantoa egitea. Aurrean nahiz atzean ez da apurtuko partida eta piloteo handia egongo da.

**Gaur materiala aukeratu duzue. Nolakoaren bila joango zarete?**

Bi lote jarriko dizkigute aukeratzeko, baina ziurrenik pilota guztiak ere antzekoak izango dira. Ahalik eta pilota txukunenak aukeratzeko saiatuko gara. Dena den, beraiekin nahiz guri antzekoak komeni zaizkigula uste dut, eta ez da alde handiegirik egongo. Behe-tik ibiltzen diren pilotak eta frontisetik irteera dezentea dutenak hartuko ditugu ziurrenik.

**Nolako joko saiatuko zare egiten?**

Ez da erraza nola jokatu asmatzea. Urriza oso pilota gutxi oparitzen dituen pilotaria da, zulo gutxi dituen, eta Etxeberriak ere dena ematen du. Beraz, gogor jokatu beharko da, erritmo handian, eta bortizki emanaz pilotari. Aukeraren bat aurkitzean berriz, tantoa amaitzen saiatuko naiz, partida luzatuz gero, beraiek eutsiko baitiote. Tanto gutxi oparitzea komeni da.

**Oro har, nola joan da txapelketa?**

Bikoteak nahiko orekatuak ziren, baina era guztietako partidak izan dira, oso onak nahiz oso txarrak. Orokorrean, erdipurdiko txapelketa izan da.

**Ustekaberik egon al da?**

Geurea agian. Jende askok uste baitzuen txapelketako bikoterik ahulena ginela, baina gu lasai aterara gara gure joko egitera eta ezustekoa eman dugu.

**Ionekin zer moduz moldatu zara?**

Oso ongi, gustura aritu naiz. Ilusio handia egin dit barekin jokatzeak, kantxatik kanpo ere lagun handia baitut eta aspaldi berekin jokatu gabea bainitzen.

→ **Laburrak**

**Elkartasun azokara materiala emateko aukera**

**BERASTEGI** ◊ Bihar amaituko da Elkartasun azokarako materiala eramateko epea. Muñagorri eskolako Ingurumen Batzordeak antolatuta, hilaren 18tik 20ra bitartean egingo dute hau. Aparkaleku azpiko lokalean ari dira biltzen gauzak 16:30etik 18:30era bitartean.

**Photoshop erabiltzen ikasteko aukera ona**

**IRURA** ◊ Oinarritzko Photoshop ikastaroa antolatu du Udalak. Saioak Irurako Kulturunean izango dira ostegun iluntzeetan 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroak urtariletik ekainera izango du iraupena. Udaletxean bertan 943 69 33 41ra deituta eman daiteke izena.

**'Narnia' filma ikusgai izango da asteburuan**

**VILLABONA** ◊ *Narnia: la travesía del viajero del Alba* filma izango da ikusgai asteburuan Gurea zinemaren. Lehendabiziko saioak etzi 18:30ean eta 22:15ean izango dira, hurrengoak, igandean 19:30ean izango da eta azkena, astelehenean, 18:30ean.

**Udalaitzera irteera asteburuan, Aizkardirekin**

**VILLABONA** ◊ Aizkardi Mendi Taldeak urteari amaiera emateko beste txango bat antolatu du. Honela, igandean, hilak 19, Elorriotik abiatu eta Udalaitzera igoko dira. Izen-ematea 20:00etatik 22:00etara 649 71 71 89ra deituta edo elkarteak bertan egin daiteke.

◉ **Hilberriak**

**MIGUEL GOENA IRASTORZA**  
- Goian bego -  
*Gizon maitagarri, umil eta txukuna  
Egunerokotasunean maisu eta laguna  
Ea ematen diogun zuk erakutsiari erantzuna  
Mila esker eta adio anaia kuttuna*

**Zure anaia-arrebak**  
Hileta GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parrokia elizan. Aldez aurretik mila esker.  
**ZALDIBIA**, 2010eko abenduaren 16a

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 18:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA Txina Inperiala**  
Funeraria Vascongada ere pertsona bakartzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.  
Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
902 402 900  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

Joxemi Saizar Tolosa

Joanes Gibelalde (Tolosa, 1976) marketing ikasketak egin zituen Iruñean, Madrilan eta Detroiten eta horretan aritu da proiektu hau burutu arte. Duela egun gutxi eman zuen bere bidaiaren proiektzio-hitzaldia Amezketan, Kultur Astearen barruan, 14.000 argazkiren artean hautaketa egin. Hemendik aurrera gehiagotan ikusteko aukera izango da. [www.enbicialsu.com](http://www.enbicialsu.com) webgunean dionez zikloturismoan okerrena ez dira aldapak, beldurra, arriskua, sufrimendua, etsipena eta izua baizik, baina bizitzaz gozatzeari, pasioa, askatasuna, dibertimendua eta errebeldia ba omen da bizikletaz bidaiatzeari.

**Zerdu bizikletak?**

Bidaiatzeko oso egokia da, merkea, arina... Bidea bizi egiten da bizikletaz. Ez dakit zergatik ez duen jende gehiagok erabiltzen.

**Lehendik ere horren bidaia luzeak eginak zenituen bizikletaz?**

Orain arteko handiena izan da hau. Lehen Alpeak, Dolomitak, Santiago Bidea, Cid-en Bidea, Espainiako itzulia, Portugal, Transpirenaika... eginak nituen. Bete bizikletaz, gehienbat errepidez, batzuetan mendiko pizte ere bai. Mendira ordea, oso gutxi joan izan naiz, ikara ematen dit, alturak errespetua ematen dit.

**Bizikletaz ibili al zara txikitatik?**

Ez. 18 urterekin Santio bidea egin nuen, baina oso gogorra egin zitzaidan eta hiru urte ibili gabe egon nintzen. Gero Internet atera eta Madrilgo batek munduari buelta eman ziola ikusita hasi nintzen eta gustatu zait. Bidaia gogorak tokatu zaizkit, baina nahiago ditut lasaia, konplikaziorik gabekoak.

**Noiz erabaki zenuen bidaia egitea?**

Beti buruan nuen, bost urtetan zehar edo, baina baldintzak ez ziren ematen: etxeko hipoteka ordaindu behar, lana... Ez nuen erabaki, unea iritsi egin zen 2007ko Eguberrietan. Hipoteka menderatuta, lanpostua utzea erabakita. Ordu arte oporretako bidaiak izan ziren. Eta 2008ko maiatzetik 2009ko irailera burutu nuen.

**Eta zein zen asmoa?**

Tolosatik Alemaniara joan, han hegazkina hartu Alaskara, Hego Amerikako muturreraino bizikletaz egin, hegazkinez itzuli Alemaniara, atsedena hartu etxean eta Alemaniatik Istanbulera bizikletaz eta etxera itzuli hegazkinez. Maria nire neskalagunarekin joateko asmoa nuen, nirekin batera ibilita zegoelako zerbait, bere erizain lanpostua utzita Madrilan, baina familia arazo batengatik zati bat besterik ez zuen egin: hemendik Alemaniara eta Alemaniatik Istanbulera.

**Nolako bizikleta erabili duzu?**

Berezia da, *rolhoff* izeneko kanbio sistema berezia dauka, kotxeena bezala, plater bat eta pinoi bat eta honen barruan kanbioa, engranaje desberdinekin. Ez da puska-



HITZA

**Joanes Gibelalde » Bidaiaria bizikletaz**

Tolosatik Istanbulera eta Amerika iparretik hegora zeharkatu du bizikletaz, 25.000 kilometro eginez 17 hilabetetan, eta bidaiatzeko modu honen defendatzaile sutsua da

# «Bidaiaren ondoren bizitza beste ikuspegi batetik ikusten dut»

tzen eta mantenu ona du. Mendiko bizikleta da.

**Eta zenbat pisu zeneraman?**

Hasieran asko: 15 kg bizikleta eta 35 kg ekipajea, zazpi alforjetan banatuta. Tartean ur litro asko behar izaten nituen, dozena bat edo, Mexikon, Atacama basamortuan. Beste batzuetan gutxiago.

**Zenbat ibiltzen zinen egunean?**

80-100 km inguru. Atsedean egun batzuk ere hartzen nituen.

**Eta non egiten zenuen lo?**

Lehen 100 egunetan bi hotel bakarrik erabili nituen, gehienetan kanpina, Mexiko arte. Denda eraman nuen. Mexikon jatetxe batean afaldu ondoren bertan egiten nuen lo. Hainbeste denbora bakarrik ibilita, telebista ikusteko, lasaigo eta erosoagoa egoteko, jendearekin harremanak izateko interresgarriagoa zen. Guatemala eta El Salvadorren hotel askotan izan nintzen, segurtasun faltagatik. Eta Hegoamerikan suhiltzailer eta polizia egoitzetan gelditu nintzen askotan. Boluntario tal-

deen biltokiak bezalakoak izaten dira, denbora-pasan. Behin bakarrik eman zidaten ezezkoa. Interesgarria da kontatzeko baduzulako eta beraiek galdera asko dituztelako.

**Nolako errepideak aurkitu dituzu?**

Gehienetan onak. Oso motza egin zait bidaia. Mexikoraino oso azkar joan nintzen. Alaskan eta Kanadan ez dago asko ikusteko. AEB mendeabatek zeharkatu nuen eta Yosemite, Gran Cañon del Colorado, Las Vegas ikusi nituen neska hara joan zitzaidalako.

## «Hiru gaztek errepidetik amildegi batera bota ninduten lapurtzeko asmotan»

ko. Costa Rican trafikoa oso arriskutsua da, batean edo bitan ispilako bizitza salbatu zidan.

**Topatu al duzu zu bezalakorik?**

Bai, dezente. Hasieran, Alaska inguruan alemaniar eta austriar

batekin ibili nintzen. Mexikon eta Nikaraguan bi kanadarrekin. Gero Panaman ikusi nituen. Tartean neskalagunaren eta bi lagun bisita izan nuen, San Frantziskon eta Mexikon.

**Eta esperientzia txarrak izan al duzu?**

Perun asaltatu egin ninduten. Trujillon Lucho Ramirezek Casa de Ciclistas dauka eta handik pasatzen gara denok. Deituen eta herri txiki batetik ez pasatzeko esan zidan, ziklistak pistolaz asaltatzen ari zirelako. Ez nion kasurik egin eta hiru gaztek errepidetik amildegi batera bota ninduten, bizikleta eta gutxi. Joka defendatu nintzen eta ez zidaten ezer lapurtu, baina eskuko behatz bat eta bizikletako hagna puskatu nituen. Pistola ez nien ikusi. Eskerrak. Nik uste dut gaztelaraz entzun zidatenean izutu zirela eta alde egin zuten. Edo autoren bat sumatuko zuten. Kristoren sustoa hartu nuen. Poliziarrengana joan, baina ez zidaten

kaso handirik egin. Gero jakin nuen Luchoren etxean aurreko batean neska daniar bati dena lapurtu ziotela eta pixkanaka dena erosi behar izan zela. Poliziarrekin adostuta zeuden. Gero enbaxadaren bidez dena berreskuratzea lortu omen zuten. Eskerrak ez zidaten ezer kendu. Behatza lotu nuen neskalagunak telefonoz esan zidan modura eta jarraitu

## «Bidaiatzeko oso egokia da bizikleta; bidea bizi egiten da bizikletaz»

## «Etxekoekin eta lagunekin harremana mantentzea garrantzitsua da»

nuen, baina lepoko mina nuen. Eta kristoren ikara. Peru bukatuta, Atacaman bi alemaniarrekin ibili nintzen eta lasaitu nintzen.

**Dena bizikletaz egin al zenuen?**

Panamatik Ekuadorrera abioez egin behar izan nuen eta Txiletik Argentinara pasa eta Barilocheetik Buenos Airesera ere bai, Usuhaiara iristeko denbora faltan. Gainera ekaina zen eta hotza eta haizea hasita zegoen. Kolonbiara ere sartu nahi nuen, baina orduantxe hil zuten *Trofijo* izeneko militar ospetsua.

**Argazki asko atera al dituzu?**

14.000 atera ditut azkenena, baina argazki-kamera ez zen oso ona eta mugatuta egon naiz. Argazki asko atera behar izan ditut aukeratu ahal izateko, ikusitakoak jasotzeko. Aurreko bi urteetan dirua aurrezten aritu ginen, ia atera eta gastatu gabe eta kamerarik ez genuen. Lagunek oparitu zidaten txiki bat eta horrekin moldatu nintzen. Lehengo hilean ezkondu ginen eta orain hobe oparitu digute.

**Eta webgunea ere testuz eta argazkiz hornitzen zenuen.**

Bai, ordenagailu txiki bat nuen horretarako. Etxekoekin eta lagunekin harremana mantentzea garrantzitsua da. Animatzeko balio zidan. Bakardadean, norbere buruarekin ondo moldatzen saiatu behar da.

**Asko aldatu da bidaiatzearena.**

Bai, telefono mugikorra eta Internetarekin asko erraztu da.

**Aire freskoko ahokada izatea espero zenuen. Hala izan da?**

Bai, gogorra da hainbeste denbora kanpoan ibiltzea, baina orain bizitza beste ikuspegi batetik ikusten dut. Jarrera aldatzen da, jakin-mina eta zentzumenak areagotu egiten dira. Jende eta toki berriak ezagutzeari gain, gure baitan ere tekla berriak ukitzen dira. Eguneroko segurtasuna eta erosotasuna utzi alde batera, arriskuren bat onartu eta ustekabeen erakargarritasuna aukeratu genuen denboraldi baterako. Ateratzeko unea iristen den bezala gelditzeko unea ere iristen da.



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	7º
HOTZENA	2º

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika. **Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_publici@tosaldekohitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoetardea:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzalde:** 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Irudia** Tolosa



**MUÑAGORRIK DU TXISTORRARIK ONENA**

Tolosako Jose Luis Muñagorri harakinak jaso zuen atzo Ordiziako Euskadiko XIII. Txistor Lehiaketako lehen saria. Epaimahaik txistorraren itxura, osagaiak eta zaporea izan zituen kontuan. Muñagorriekin batera Lakuntzako Agirre harategiak, Ata-

rriabiako Larragueta Hermanos eta Joakin Romerok, eta Arbizuko Anastasio Erraskin nafarek ere diplomak jaso zituzten. Guztira 48 harakinek hartu zuten parte; Arabako bakarra, Nafarroako hamahiru eta Gipuzkoako 34. HITZA

**Agurrak**

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

**www.TOLOSALDEA.hitza.info**

**www.IBARRALDEA.hitza.info**

**www.ALEGIALDEA.hitza.info**

**www.LEITZALDEA.hitza.info**

**www.TOLOSALDEA.hitza.info**

**www.ANOETALDEA.hitza.info**

**www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info**

EZAGUTU  
WEBGUNE BERRIAK

**Agenda**

**DEIALDIK**

- **Tolosa.** Galtzaundi Irakurle taldeak Ur Apalategiren *Fikzioaren izterrak* liburua aztertuko du, idazlea berarekin batera, Kultur Etxean, 19:30ean.
- **Tolosa.** Munduko ipuinen kontaketa ingelesez, Errota haur liburutegian, 18:00etan. 6-10 urte bitarteko haurrentzat.

**MUSIKA**

- **Altzo.** Olentzerotan jakin min ez kultur aroaren baitan musika emanaldia izango da 18:00etan elizan, Loatzoko musika eskolako ikasleen eskutik.

**AZOKA**

- **Ibarra.** Ibaratik Misio Taldeak antolatuta, elizaren ondoko lokalean, Bigarren Eskuko Azoka.
- **Berastegi.** Muñagorri Eskolako ingurumen batzordeak antolatuta, Elkartasun Azoka izango

da asteburuan. Materiala bil-tzen ari dira astean zehar.

- **Tolosa.** Elkartasun Azoka Amaroitz auzoko lokalean, hilaren 17ra arte, 16:00etatik 19:00etara.

**ERAKUSKETA**

- **Ibarra.** Galtzakomik lehiaketan parte hartu duten lanen erakusketa bihar arte Benito Izagurre kultur etxean.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarrera, 1. 943 67 36 49.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.




## Helduentzat eta umeentzat

Abenduak 24 arte egiten diren erosketengatik 3 zozketatan parte hartuko duzu:

- Spa zirkuito bat
- Posada batean aste bukaera
- Paradore batean aste bukaera



Errementari Kalea, z/g  
**TOLOSA**  
Tel.: 943 67 16 30

**LENTZERIA**